



Solteroak

Konplexurik gabeko klase sozial indartsua

Ezkongabeak beti egon dira, edozein familian. *Neskazaharrak* eta *mutilzaharrak* nonahi eta noiznahi. Baina dirudienez, edo komunikabideek diotenez, inoiz ez dira orain beste egon. Eta inoiz ez dute oraingoa bezalako bizimodu aske eta eroso izan. Lehen baztertuak eta kritikatuak, orain askotan goraipatuak. Euren bizimodua ezagutu nahi izan dugu.

IZASKUN JAUREGI

Argazkiak: Dani Blanco

ARGITU DEZAGUN ezer baino lehen: ezkongabeek ari garenean ez gara ezkontzaz ari, bikotekidea izateaz baizik. Jakina baita gaur egun ezkonduak ez dauden bikote asko etxe berean bizi direla. Bakarrik bizi diren eta bikotekiderik ez dutenei buruz mintzatuko gara hemen. *Bridget Jones* edo *Sex in New York* bezalako film eta telesailak erakutsi dizkiguten gazte-heldu independente horiei buruz. Klase sozial berri bat sortu dela diote batzuek: singleak, banakakoak edota bakoitiak deiturikoa. Estatistiketan, bakarrik bizi diren 25 eta 60 urte bitarteko pertsonak sartu ohi dituzte zaku horretan. Horien artean, hala ere, mota askotakoak daude: bananduak edo dibortziatuak, alargunak eta ibilbide luzeko ezkongabeak.

Single hitza AEBetan sortu zen. Han, 50eko hamarkadatik ezkonduakoen kopuruak %80tik %50era egin du behera. New Yorken esaterako, etxeen %70ean pertsona bakarra bizi da. Europar pertsona bakarrek 46 milioi etxe daude. Joera orokorra da, baina ezin da orokortu, Isabel Larrañaga EHUKo Soziologia irakasleak esan digunez. Europa iparraldean gazteak bakarrik bizitzera joan ohi dira, tradizio handia dago. Euskal Herrian, egin diren ikerketen arabera behintzat, ezin da horrelako fenomeno batez hitz egin. Gurean, familiaren tradizioak pisu ikaragarria du oraindik eta etxebizitzaren salneurriak eragin izugarria. “Bakarrik bizitzea trantsizio egoera bat da hemen, bikotekidea izan, bikotekidearekin bizitzen jarri edota familia izan artean, baina gutxi dira bakarrik bizitzea

erabaki eta egiten dutenak. Hemen behin-behinekoea da bakarrik bizitzearena. Europa iparraldean, ordea, erabaki baten ondorio”. Mediterraneo zonalde guztian gertatzen da Euskal Herrian bezala. Beraz —ohartarazi digu Larrañagak— kontuz ibili behar da iragartzen diren “fenomeno” hauekin. Pertsona bakarrek etxeak 1981ean EAEn %7,7 ziren; 2001ean %20,3. Baina bakarrik bizi direnen kopurua handia da, batik bat, zahartzaroan, eta gehienbat, emakume alargunei dagokie. Eustat-ek plazaratu berri duen txosten sozioekonomikoak ere horrela baieztatzen du: “Aski zabaldua den uste bat, pertsona bakarrekoen etxe kopurua eta familiaren etxetik emantzipatutako gazteena bateratsu hazten direlakoa, ez da betetzen. Gazte horiek bakarrik bizi diren pertsonen %5 baino ez dira”.

Txikia izanik hazten

Zehaztapenak zehaztapen, singleen multzo honetan sailka daitezkeen pertsonen kopurua haziz doa, baina Europa iparraldean eta Ameriketako baldintzak ez baitira egokienak: etxebizitza garestiak, alokairuko etxeen eskaintza murrizta, gazteen lan baldintza kaskarrak... “Bakarrik bizi ahal izateko dirua eduki beharra dago”, dio Larrañagak, eta hain zuzen, pertsona bakarra bizi den etxebizitzaren kopurua herrialdearen garapenaren adierazle bihurtu da. Aldi berean, kopuru horrek bertako biztanleen independentzia emozionala eta soziala adierazten ditu.

Laztan festak

Bakarrik bizitzea eta bakarrik egotea ez da gauza bera. Bakardadea zerbait objektiboa da, baina badu osagai subjektiboa ere: bakarrik sentitzea edo ez. Sagrario Yarnoz EHuko Psikologia irakasleak dioenez, bakardadea, bakarrik sentitzea alegia, beti osasun falta kontsideratua izan da eta posible da norbaitekin bizitzea eta bakarrik sentitzea.

AEBetan, mundua hotzegia zela iritzita, Cuddle Party-ak jarri dituzte martxan. Sekulako arrakasta dute eta Europara ere iritsi dira. Nahi duenak hegaldi bat hartu eta Berlin edo Amsterdamera joatea besterik ez du. Cuddle Party-ak Mismoen Festak dira. Bertaratzen direnek mimoak, masajeak eta laztanak jasotzen dituzte. Mismoen Festa hauetan parte hartzen dutenak 25-55 urte bitartean izan ohi dute. Munduko herrialde garatuenetan dute arrakasta horrelakoek, single gehien dauden herrialdeetan. Jasaten ari garen indibidualizazio prozesuaren ondorioa izan daiteke: adin horretan daudenek ere ez dute behar adinako maitasun adierazpenik jasotzen edo ematen, eta hori lortzeko ordaindu egiten dute. 15 eurogatik bi ordu eta erdiko saioak jaso daitezke. Pijama baino ezin daiteke eraman jantzita, eta burkoa, koxina edo pelutxeak balia daitezke.

Herrialde garatuetan ematen den fenomeno delarik ezin gezurtatu, egoera ekonomiko ona behar baita. “Bizimodu honen jatorria hedonismoa da neurri handi batean, eta azpigarapean bizi denak zaila du hedonismo hori bizitzea”, dio Larrañagak.

Banakako hauek publizitatearen, komunikabideen eta aisialdiaren inguruan eraikitzen den ekonomia sortzailearen objektu eta subjektu dira gainera: eurak dira produktoreak, eurak sortzen denaren kontsumitzaileak. Diskoak, liburuak, bidaia, afari exotikoak, alkohola... Gazteak dira nagusi horrelakoak erosten. “Baina hori beti horrela izan da”, esan digu Larrañagak. Izan daiteke. Baina ezin da ukatu indibidualizazio prozesu batean bizi garenik, eta Iraultza Frantsesetik hona norberak bere zibilizazio gehiago eta arreta handiagoz begiratzeko dio.

Sagrario Yarnozek, EHuko Psikologia irakasleak indibidualizazio prozesu horren beste alderdi batzuk ere aipatu dizkigu: “Garai batean jendeak besteen beharra zeukan irauteko. Orain, gizarte antolaketa ahalbidetzen du bakarrik irautea”. Are gehiago, batzuetan besteekin egoteko denbora gehiago eskaintzen du. Carmen Alborchek *Solas* liburuan esaten duenez, “ezkongabeei buruz dagoen ustearen egoera zibiletik –ezkongabea– sentimendura pasa gara –bakardadea–, kontuan hartu gabe bakarrik bizitzea ez dela isolatua bizitzea. Batzuetan, gainera, kontrako egoera sortzen du, denbora gehiago izateak besteekin harremanak eta elkarrekin izateko gure gaitasuna zabaltzen baitu”. Agian horregatik bikote gero eta gehiagok erabakitzen du bakoitza bere etxean bizitzea.

Marketinaren jomuga

Singleak honela definitzen dituzte marketineko ikerketek: hogeitaka eta hirurogei urte bitarteko “gazteak”; unibertsitate mailako ikasketekin; estatus ekonomiko eta kultural altukoak; normalean hiri handietan biltzen dira eta beraien burua zaintzea gustatzen zaie: forma fisikoa eta osasun mentala.



Emakumeak lehenengo

Bakarrik bizi diren gazte-helduen kopuruaren hazkundeak beraz, indibidualizazio prozesua du oinarri. Emakumea etxetik kanpora lanera irtetea izan da neurri handi batean prozesu honen sustatzailea. Ordura arte, etxean bi behar zeuden: bata, zaintza lana, berak betetzen zuena. Bestea, ekonomikoa, gizonaren zeregina. Baina emakumeak ordaindutako lana erdiestean, bi behar horiei berak bakarrik aurre egitea lortu zuen. Emakumeak izan dira beraz, Lluís Flaquer Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Familia Politiketan aditua den soziologoak dioenez, bakarrik bizitzeko joera honen bultzatzaileak.

Beste kontu bat da ea gizon baino emakume gehiago bizi diren bakarrik. Datuek orokorrean baietz diote: 2001ean EAEn zeuden lagun bakarrek etxetatik, %8,3tan gizonetara zen kide bakar hori; %11,9tan, berriz, emakumea. Baina lehenago aipatu dugun moduan, alargun eta dibortziatuen zifrak zerikusi handia du horrekin. Izan ere, banantzen diren bikoteetan ere askoz gehiago dira gurasoen etxera itzultzen diren edota beste bikotekide batekin elkartzeko diren gizonak, emakumeak baino. Zergatik? “Oraindik ere berdintasunaren arazoa dagoelako”, erantzun digu argi Yarnozek. “Bikoterik berdinean ere beti kargaren proportzio handiagoa hartzen du emakumeak. Orduan imajinatzen dut emakumeok oso sinplea den batuketa egiten dugula: zertarako kargatu lan gehiago-



Klase kontsumista berria

Bilatzen hasita harrituta geratzen da bat ezkongabeei bideratuta asmatu dituzten ekintzekin. Esaterako, Parisen, 1985ean egin zen Lehenengo Ezkongabeentzako Saloia. Bertan ezkongabeei zuzendutako produktu eta zerbitzuak eskaintzen dira, eta aldi berean, produktu eta zerbitzu horiek publizista eta ikerlarien ikerketen iturri dira. Bartzelonan, 2005ean egin zen lehenengo aldiz Singles Saloia (www.salonsingles.net). Bestalde, Espainiako Estatuan banakakoentzako aldizkari eta elkartea sortu zen 2000. urtean (www.revistaimpar.com). Urteko 200 euro ordaintzen dituzte kideek. Gaur egun, gai bera lantzen duten beste hainbat web gune martxan dira. Badira singleentzako zerbitzuetan espezializatu diren enpresak ere: bikotearen banantze uneetan laguntzen zaituen enpresa, adibidez, edota banakakoentzako bidaiak antolatzen dituen.

Adituen ustez, ezkongabeek ez dute gehiago xahutzen, baina duten dirua euren buruan inbertitzen dute.

Bada, singleen estereotipo hau betetzen dutenek lagunak bihurtu dituzte familia eta telefono mugikorra eurekin uneoro komunikatzeko erreminta. Sarri, bakarrik bizi direnak lagunarekin joaten dira medikuarengana, etxea elkarrekin margotzen dute edota elkarrekin joaten dira oporretara eta kirola egitera.

Hala ere, gaur egun oraindik ez da samurra bizitza bakarrik egitea. Zailtasunak handiak dira. Esaterako, gremioek beti norbait etxean izatea espero dute lan orduetan. Pixkanaka ordea, eta marketin azterketak direla tarteko, ari dira gauzak aldatzen. Lehen, bakarrik bizi zen norbaitentzat zenbait janari erostea arazoa zen, alferrik galtzen zitzaizkiolako. Orain, hainbat gunetan prestatutako etxeko janaria eros daiteke, banakakoentzako neurrian gainera. Horrelako dendak ugaritzen ari dira gure inguruan, eta horietako asko janari ekologikoa edota etxekoa prestatzen eta saltzen saiatzen dira. Bezeroak ezkongabe gazteak dira batez ere. Gune komertzialetan, gaur egun xerra bakarrekotako bandejak, platano bakarrekotako paketeak, elektrotresna gero eta txikiagoak... eros daitezke. Metro koadro gutxiko apartamentu eta estudioak ere ugaritzen ari dira.

Formatu berriko produktu hauen ugaritzea TNS WorldPanel kontsultoreak eginiko *Bakarrik bizi, lagun bakarrekotako etxeen 360 ga-*

duak ikerketaren emaitzetan eta antzekoetan oinarritzen da. Ikerketa horrek honako deskribapena egiten du singleen ohiturei buruz: eguneroko plazer txikiak baimentzen dizkiote beren buruari, hala nola bonboiak, fruitu lehorrak, izozkiak, txokolatezko gailetak... Ardoa eta gama altuko jogurten kontsumitzaile handiak dira. Singleak gasolina-zerbitzuguneetako eta ordutegi malgua duten dendetako ohiko beze-

rekin beste antolaketa batekin ondo moldatuko banaiz?''.

Singleen fenomeno deitzen duten honen arrazioen artean, hainbatek egoismoa ere aipatzen du, hau da, inor jasateko ezintasuna. "Ez dut uste orain gutxiago jasaten dugunik. Zer-bait izatekotan, aukera diferenteak aurreikusten ditugula esan beharko genuke. Aukera horien artean ez da sakrifizioa edo errutina sartzen". Aldi berean, beste faktore batek ere badu zerikusia bikotea ez izatearekin: bikotekidearengandik askoz gauza gehiago espero ditugu orain, eta produktua azkarrago agortzen dugu eta aldaketa gehiagorekin. Orain, egoera zibilak ez du garai bateko esanahirik: ezkondu edo ezkongabe izateak ez du benetan norberaren egoera adierazten. Gaur egungo eredu "segidako monogamia" da. Eta tartean, bakarrik bizitzeko une ugari daude.

Kontsumoa bideratzen dutenek hori guztia badakite. "Ez dut uste botere politiko edo ekonomikoak horrelako giza-multzoa sustatu duenik. Baina garbi dago botereak etekina atera nahi diola", aitortu digu Larrañagak. Gizartean balore aldaketa bat eman da. Eta zenbaitek aprobetsatu egin nahi du.


Lagun familiak eta produktu eskusiboak

Bakarrik bizitzeak ez du esan nahi familiarik ez izatea. Ohiko familia ereduak aldatzen ari da.


Carmen Alborchen esanetan, bakarrik bizitzea ez da isolatuta bizitzea. Denbora gehiago izateak besteekin harremanak izateko gure gaitasuna zabal dezake

Fenomenoaren neurriak

Famili bizikidetzeta motak adinaren arabera EAEn



Pertsona bakarrek familietan bizi direnen proportzioa EAEn, adinaren eta egoera zibilaren arabera



Lagun bakarrek etxeen indizea EAEn

Urtea	Etxeak guztira	Lagun bakarrek etxeak					
		Guztira	%	Gizonak	%	Emakumeak	%
1991	632.075	73.648	11,7	25.177	4,0	48.471	7,7
1996	683.735	105.171	15,4	39.184	5,7	65.987	9,7
2001	748.967	151.855	20,3	62.428	8,3	89.427	11,9

Iturria: Eustat. Inkesta Demografikoa 2002.

✓ **Europar** lagun bakarrek 46 milioi etxe daude. Herrialdeka, Irlandan daude gehien (%55), ondoren Finlandian (%50), Suedian (%50), Frantzia (%50) eta Danimarkan (%45).

✓ **Espainiako Estatuan**, INEren datuen arabera, 2001ean 5,6 milioi single zeuden. 2005ean, 7 milioi. Kopuru horren barruan sartzen ziren, 5.800.000 inguru ezkontabe, 545.000tik gora alargun, 650.000 banandu inguru eta 407.000 dibortziatu.

roak dira. Kozinatzerakoan batez ere produktua egosi eta erre egiten dituzte, eta ez hainbeste frijitu. 65 urte azpitiko ezkontabeek askotan otorduak etxetik kanpora egiten dituzte, nahiago dute denbora etxetik kanpora igaro, zinemara joan edota gauez atera... eta ezkontabe gazteek euren etxeko despentsa astelehenean betetzen dute. Pizzak afaltzeko ohiko aukera dira. Eta etxeko animalia baten konpainia dute gustuko.

Ikerketaren arabera, hamar urtetan singleen kopurua bikoiztu egin zen Espainiako Estatu-

Produktuak banakakoentzako neurrian saltzen dituzten denda eta supermerkatuak areagotzen ari dira gure inguruan.

tuan; Frantzia, Erresuma Batua, Herbehereak edo Alemanian %30a dira ezkontabeak; eta iparraldeko herrietan, etxeen %37an behintzat pertsona bakarra bizi da. Horiek denak marketen azterketen jomuga bihurtu dira. Baina, egia al da ezkontabeek familian edo bikotean bizi direnek baino diru gehiago xahutzen dutela? Adituen ustez ez dute gehiago xahutzen, baina duten dirua euren buruan inbertitzen dute. Eta hor dago ezkontabeen eta marketen enpresen artean dagoen erakargarritasunaren giltza. Lehen esan bezala, bi norabideko harremana da hori: eurak dira sortzaileak, eurak erosleak.

Bakardadearen lana

Bakardadeak lanak ematen ditu: etxea aurkitzea eta hori ordaindu ahal izateko dirua lortzea. Lanak etxeko berezko ardurak eramateko. Lanak erosteko. Bakarrik egoteko. Izan ere, bakardadeak bi esanahi hartzen ditu kultura ezberdinetan: fisikoa eta emozionala. Eta bi alderdiek lanak ematen dituzte. Fisikoak aipatu ditugu. Emozionalak ordea, lan astunagoak ekartzen ditu sarri. Bakarrik egotea gauza bat da, bakarrik sentitzea beste bat. Pentsalari ugari azpimarratu du bakardadearen lana ezagutzearen garrantzia. Erich Fromm psikologo alemaniarak esaterako zera dio: beharrezkoa dela bakarrik egoten jakitea besteak maitatzeko,



INES URRUTIA

modu horretan desioaren arabera mugitzen garelako eta ez beharrak aginduta.

Batera zein bestera, kontua da ezkongabe dauden gazte-helduen artean askok ez duela aukera hori aukeratu, etorri egin zaiola, eta nahiago lukeela bikotekidea izan. Beraz, orain arte azaldu dugun bizimodua zenbaitetan ez da desio kontua, behar kontua baizik. Modan dago eta ondo ikusia da, baina aldi berean asko zabaldua den ustea da gero eta zailagoa dela behin 30 urte betetakoan bikotekidea aurkitzea, Sagrario Yarnozek azaldu digunez. “Ematen du adin horretara iritsita, eta batez ere emakumeak, ez badute bikotekiderik ikaratu egiten direla. Filmetan asko ageri da hori”. Inori entzun diozu esaten “jende interesgarria harrapatuta dagoela” jada? Bridget Jones-i adibidez? Horrek “bakardade erromantikoa” du izena. “Familia eta lagunak izanda ere, pertsona berezi horren beharra existitzen da, eta behar espezifikoak da. Txikitan izandako atxikimendu irudiak zerikusi handia du horretan. Eta atxikitako irudia normalean amarena izaten da. Horren arabera harremanetan jartzeko modu ezberdinak omen daude: batzuek azaleko harremanak nahiago dituzte, bestela itota sentitzen direlako. Beste batzuek, pertsona berezi hori ez badute, erabat larrituta sentituko dira, eta harreman bat dutenean agian gehiegi ito dezakete bestea. Beste batzuk, harremana behar izanda ere, gai dira mugak jartzeko eta ez itotzeko.

Ez hain handia, ez hain zaharra

Singleak bezalako fenomeno soziologikoez hitz egitean kontu handiz ibili beharra dagoela esan digu Isabel Larrañagak. “Fenomeno hauek ez dira hain berriak ezta hain handiak ere, aztertzen hasten bazara”. Gazte-helduen joerak aztertzerako orduan, gurasoen jarrera ere aztertu behar dela uste du: “Orain gazteak diren horien gurasoek seme-alabekin zein estrategia erabili duten ikustea garrantzitsua da, ez ote duten nahiago izan eskuzabaltasuna mugaraino

Zurekin baina zu gabe

Badira ezkongabe bezala bizi diren bikoteak ere: bikotekide bakoitza bere etxean bizi eta nahi dutenean elkartzen direnak, alegia. Gero eta gehiago dira eta *Living Apart Together* edo LAT deitzen zaie. Zergatik gertatzen den hori? Hain zuzen, gero eta garrantzi gehiago ematen diogulako bakoitzak norberaren bizitzari, askatasunari. Bakarrik bizitzeak bakardade sentimendua ekar dezake batzuetan; baina bestalde bakarrik biziz gero, ez dago etxeko ardurak edota ardura ekonomikoak inorekin partekatu beharrik. Modu horretan bizi diren bikoteek ez diote besteari une bakoitzean egiten dutena azaldu beharrik, ez dute zertan elkarrekin bizitzeak ekar dezakeen errutinaren zama eraman beharrik.

Garai batean presio soziala oso handia zen zentzu honetan. Gaur egun ez dago horrelakorik, edo behintzat txikiagoa da. Hogeiei urte inguruko gazteen jokaeran nabarmenak dira presio sozial hori ahultzearen ondorioak: lehen bikotekideak zuen lehentasuna, eta nolabait lagunak alde batera uzten ziren. Orain, alderantziz da: lagunak dute lehentasuna eta bikotea une jakin batzuetan elkartzen da. Hogeitaka urteko gazte horien segida izan daiteke LAT-ena. Horregatik gero eta ohikoagoa da bikotean norberak bere etxea izatea eta gero, kideek nahi dutenean, elkartzea. European, taldean bizitzea ere oso ohikoa da: bikotekide bat bere lagunekin bizi daiteke eta bestea bereekin. Dena den, horrela bizitzeak ez du esan nahi bikoteak ez duenik konpromiso sendorik.

eraman seme-alabak galdu baino. Horrela baino ezin dira azaldu gaur egungo hainbat joera: seme-alabek gurasoen etxean ere nahi dutena egitea, logela euren eremu pribatu bihurtzea, gurasoen bigarren etxebizitza seme-alaben esku uztea, seme-alabei etxea erostea...”.

Gizarteko eredu hauek guztiak soziologian daude oinarrituta. Yarnozek garai bateko *yuppieak* ekarri dizkigu gogora. 80ko hamarkada inguruan, oraingo sin-gleen antzeko fenomenoak zen.

Yuppieak profesionalak eta gazteak ziren; bikotean bizi ziren (kasu hartan) baina seme-alabarik gabe; eta ekonomikoki maila altua zuten. Ezagun egiten zaizue deskribapena? ■

Bikotekidearengandik gauza
gehiago espero ditugu orain, eta
produktua azkarrago agortzen
dugu. Egungo eredia “segidako
monogamia” da

